

Familia agurgarria

Irailean 2022-2023 ikasturteari ekingo diogu. Hasteko, kurtso normalizatua espero dugu. Hala ere, Zaraoben, gure eskuetan dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dugu, ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, bai eta euren eta guztion ongizatea bermatzeko ere.

Dokumentu honek, zuek agurtzeaz gain, kurtso hasierako oinarrizko informazioa emateko helburua du.

Jarraian 2022-23 kurtsoari begirako informazio esanguratsuena jakinarazten dizuegu. Informazio hau osatzeko, mesedez web orrialdea kontsultatu [web-orria](#).

1. Kurtso hasiera: Aurkezpena **irailaren 8an**, osteguna. Kurtsoaren egutegi osoa web orrialdean ikus daiteke.
2. **3 DBHko** aurkezpen egunaren **ordutegia 11:00etan** izango da. **4 DBHko** aurkezpen egunaren **ordutegia 11:30etan** izango da. Garraio erabiltzaileak autobusak normalean hartuko duen baino **ordu t'erdi beranduago** hartuko du, web orrialdean [zerbitzu atalean](#) kontsultatu ordutegia.
3. Urteroko ordainketak (kurtso hasieran ordinagiriak jasoko dira).
 - Eskola materiala
 - Takillaren erabilera. 5€ **ikasle berriek**. Takilak erabiltzeko araudia web orrialdean ikus daiteke.
 - AMPA (ekintza osagarriak, Hauspoa, literatur lehiaketa...) 15€ familiako.
 - Eskola aseguru
4. **DBHko 3.mailako ikasleek karnet-argazki** bat (argazkiaren atzeko aldean izena eta 2 abizen idatzita) ekarri behar dute.
5. Eskola ordutegia: 2022-23 ikasturteko ordutegia **trinkoa** izango da (**DBHn 08:30-14:30**). Ordutegiaren zehaztasunak, web orrialdean. Sarreran metaketak saihesteko 08:20tik aurrera iristea gomendatzen da DBHn eta 08:15, batxillerrekoen kasuan.
6. **Hedatze** programa: Datorren ikasturtean, errefortzu eta tailerretako Hedatze programa gauzatuko da. Arratsaldeaz eta urritik aurrera. Irailean honen gaineko informazioa emango da.
7. Garraioa **DBHko ikasleentzat**: ibilbideak eta geltokiei buruzko informazioa web orrialdean, irailaren hasieran.
8. **Osasun neurriak**: Hezkuntza Sailak esango digu zein neurri hartu behar diren 2022-2023 ikasturterako Osasun neurriei dagokien Hezkuntza sailak bidalitako informazio guztia web orrialdean eskegiko da.

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste

bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

ZARAOBE INSTITUTUKO WEB ORRIA

Gure web helbidea hauxe da: <https://zaraobe.net>

Bertan oso erabilgarria den informazioa eskura dezakezue.

Zalantzarik izanez gero, deitu mesedez ikastetxeko telefonora **945 393 000**, goizeko ordutegian irailaren 1etik aurrera.

Uda ona igaro duzuelakoan

Agur bero bat



DBH 3 eta DBH 4

ORDAINKETAK: kurtso hasieran ordinagiriak jasoko dira.

A- Kontzeptuan ikaslearen izena eta abizena jarri behar dira.

- a) **IKASLE BERRIA** bada, guztira **26€**:eskola aseguruua + materiala+ takila.
- b) **IKASLE ZAHARRA** bada, guztira **21€** : eskola aseguruua+ materiala

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak hala eskatuta, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek, goian adierazitako aseguruua ordaintzeaz gain, NANaren bi aldeetako fotokopia bat ere ekarri beharko dute.

KUTXABANK
ES95 2095 0611 0110 9095 2895

B- **Familia bakoitzak 15€** ordainduko du ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak direla eta, **AMPA BABIO** Gurasoen Elkarteko kuota, ondorengo kontu korrontean:

Kontzeptuan seme/alaba baten izena eta abizena jarri behar dira.

CAJA RURAL NAVARRA
ES70 3008 0214 18 3245703826
